«EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NEGU-PASAKO UR-HEGAZTIEN ERROLDAK, 2027KO DENBORALDIA» ZERBITZUA KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

2026ko urria

1. **Xedea.** 2027an Euskal Autonomia Erkidegoan negu-pasako ur-hegaztien erroldak egitea, era honetako lanetarako ohikoak diren prozedura tekniko egokiak erabiliz. Bereziki, landa-lanerako lehentasunezko datak eta Negu-pasako Ur-hegaztien Errolden Nazioarteko Programak proposatutako gomendio metodologikoak hartuko dira kontuan (https://europe.wetlands.org/home-2/our-work/wetland-biodiversity/african-eurasian-waterbird-census/). Hegaztiak zenbatzeko, erroldatu beharreko lekuaren neurrira eta ezaugarrietara egokitutako behatzaile kopurua, baliabide optikoak eta estrategia (ikuspegi zabaleko behaketa-puntuak edo perimetroko ibilbideak) erabiliko dira. Nolanahi ere, Fundación Hazi Fundazioko teknikariek ematen dituzten jarraibideak beteko dira.

2. Landa-lanak egiteko ezarritako datak urtarrileko bigarren asteburuari dagozkio; beharrezkoa izanez gero, aurreko eta ondorengo bost egunetan ere egin ahal izango dira zenbaketak.

3. Zenbatuko diren espezieak Fundación Hazi Fundazioak emango dituen landa-fitxetan adierazitakoak izango dira.

4. Leku bakoitzean, Fundación Hazi Fundazioak emandako dagokion landa-fitxan kartografiatutako eremuan egingo da zenbaketa.

5. Erakunde kudeatzailearen ardurapeko ingurumen-jarraipenerako talde propioa duten hezeguneetan, talde horren lankidetza eskatuko da, eta emandako datuak gainerako lekuetan erabilitakoekin bateragarriak diren protokolo metodologikoen arabera jaso direla bermatuko da.

6. Kasu batzuetan «azpilekuak» zehaztu dira, ingurumen-kalifikazio berezia duten eremuak, eta horiei buruzko datuak bereiz eman beharko dira. Hala ere, horiek barne hartzen dituzten eremu nagusiko datuei gehituta ere aurkeztuko dira.

7. Errolda amaitutakoan, adjudikaziodunek behar bezala betetako landa-fitxen kopia bat eta emaitzak eta balorazioa jasotzen dituen txosten labur bat entregatuko dituzte, paperean eta euskarri digitalean, beranduenez 2027ko otsailaren 28an.

8. Emaitzak jaso eta teknikoki ontzat eman ondoren, Fundación Hazi Fundazioak kontratuaren zenbatekoa ordainduko du, dagokion faktura aurkeztu eta gero.

9. Adjudikaziodunek eta Fundación Hazi Fundazioak elkarri aitortzen diote lanaren ondoriozko datuak eta informazioa erabiltzeko eskubidea, betiere beste alderdia eta Eusko Jaurlaritza aipatzen badira. Fundación Hazi Fundazioak beretzat gordetzen du datuak Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzari emateko eskubidea, bai eta azterlanetan, dokumentuetan, argitalpenetan edo informazioa zabaltzeko beste bide batzuetan erabiltzekoa ere.

10. Adjudikaziodunek beharrezkoak izan daitezkeen baimenak izapidetuko dituzte, eta kontratazio honi lotutako lanak egitean indarrean dagoen araudia betetzeko konpromisoa hartuko dute, bereziki natura kontserbatzeari, espezieak eta naturaguneak babesteari eta osasun-arrazoiengatiko murrizketei buruzkoa, bai eta aplikatu beharreko gainerako araudia ere. Fundación Hazi Fundazioak ez du adjudikaziodunei egotz dakizkiekeen ekintzen edo ez-egiteen ondoriozko erreklamaziorik onartuko.

11. Araban erroldatu beharreko lekuak eta azpilekuak honako hauek dira:

LEKUAK	AZPILEKUAK
Andaverde	
Añua	
Ezquerecocha	
Langarika	
Urturi	
Prao de la Paul	
Arkaute	
Betoño	
Duranzarra	
Maroño	
Urrunaga	
Ullibarri-Gamboa	Ullíbarri-Gamboako adarrak (Ramsar eremua)
Arreo	
Carralogroño	
Carravalseca	
Lacorzana	
Zadorra (Gamarra-Yurre)	

LEKUAK
Ebro (Labastida)
Olarizu

12. Bizkaian erroldatu beharreko lekuak eta azpilekuak honako hauek dira:

LEKUAK	AZPILEKUAK	AZPILEKUAK
Petronor		
Barbadun		
Plentzia		
Urdaibai (ZEPA)	Ría de Mundaka-Guernika (área Ramsar)	Gaztelugatxe (monumento natural)
Lekeitio		
Ondarroa		
Laukariz		
Anibarri		
Bolue		
Cabo Billano		
Abra		

13. Gipuzkoan erroldatu beharreko lekuak eta azpilekuak honako hauek dira:

LEKUAK	AZPILEKUAK
Txingudi	Jaizubia-Plaiaundi-Islas (área Ramsar y ZEPA)
Pasaia	
Donostia-San Sebastián	
Orio	
Zarautz	Inurritza (paisaje natural protegido)
Zumaia	
Deba	

LEKUAK	AZPILEKUAK
Urkulu	
Ibai-Eder	
Troi	
Jaizkibel	
Getaria	
Mutriku	
Leizaran (reserva natural)	
Oria bajo	
Oria medio	
Deba medio	
Ibiur	

Arkauten, 2026ko urriaren 15ean

Mikel de Francisco
Natura Ingurunearen Arloko arduraduna